

## ZE KOLORE EZAUKETAN DOZU?

### 1.- Sarrera

Kolorea, besteak beste, fenomeno kulturala da eta geureak, euskal kulturak nola ulertu, nola hauteman duen ezagutzeko jakinminak bultzatu zuen lan hau. Alabaina, euskal ikuskera zehatzea gehiegi zelakoan (euskalkiak, azpiegitura, denbora, zer da euskal kultura?,...), adierazgarria zen herri batena aztertzea jarri nuen helburu.

Aramaiok, herri euskalduna (euskaldunen portzentaia Euskal Herri osoko altuenetarikoa da), oraindik ere linguistikoki gutxi 'kutsatuta' dagoena (behinik behin ohiko bizi-moduari atxikituta jarraitzen dutenen artean), eboluzio demografikoko indizea beheruntz joan da azken ehun urteetan, baserrietan batik bat,... aukera paregabea eskeintzen zuen eta bertan, 1989.eko udan zaharrekin eta 1990.eko udaberrian gazteekin, burutu nuen ikerketa lana (*Kolorea herri euskaldun batean*, E.H.U. Argitarapen Zerbitzua, 1994).

Gizatalde guztietan azpimultzoak badira honako hau ez da salbuespena eta hurrengo lerroetan ikuskera bat eskaintzen da, bertakoa hobekien isladatzen dutenena, adineko baserritarrena alegia, kaletarrak nonbait, beste eragin batzuen pean baitaude.

Kolorea nola ulertzen duten eta horren inguruko oinarritzko puntu batzuk jorratuko ditut hasieran, zeintzuk kolore diren erabiltzen dituztenak azaltzeko gero. Zahar hauen emaitzak eta gazteenak oso ezberdinak direnez, gogoeta zenbait utziko dut bukaerarako.

### 2.- Kolorearen ulerkera

Lehenengo eta behin esan beharra dago ez duela gai honek interes handirik sortarazten, ez da garrantziko gauzatat jotzen. Naturan, ohiko bizimoduan momentu gutxitan da inportante eta koloreari buruz galdetuta aramaiotarrak kolore artifizialekin lotzen du: jantziek erakus ditzaketen kolore desberdinak edota inguruko gauzak, ate, lehio, horma,

lorontzi, kotxe, telefono eta abarrek erakusten dituzten koloreak, gero eta artifizialagoa dugun inguruan.

Bizitza arruntean, kolorea ezaugarri bezala ez da beti erabilia izaten edo espreski adierazten, kasu gehienetan ez da gauzak bereizteko edo ezagutarazteko erabiltzen den kategoria bakarra eta beste batzuk (ehundura, itxura orokorra eta abar) egokiagoak eta erabilgarriagoak izaten dira. Bakarrik gauza bakar batzuetan izaten da ezaugarri nabarmena eta, hala ere, kolorea gauza baten ezaugarri bezala erabiliz, batzuetan kontrakoa adierazteko ez da kolore kategoria bat erabiltzen, oso bestelakoa baizik: zerua > 'azule-lainatuta'.

*Ildo honetatik eta arazoa bere horretan egoki ulertzeko, funtsezko bereizketa azpimarratu behar da: naturan ematen diren eta gizakiak sorturiko koloreen artekoa. Kolore artifizialak zehatzak izaten dira, iraunkorrak, kasu askotan homogeenak eta, egun, mugaezinezko aniztasuna erakusten dute.*

Horien aurrean, naturan agertzen direnak oso bestelakoak dira: tartekoak, nahastutakoak, bat baino gehiago sarri askotan, urtaro, sasoi, sexu, ingurugiro, argi, baldintza atmosferiko eta begiralearen arabera aldakorak, nabardura ugarikoak,... Oro har, abere lumadun eta iledunengan oso nabaria izaten da hau: noiz kolore bakarrek, bikoak, hirukoak,... eta beste ezaugarri batzuk ere bai: gaineko aldetik nabarmenagoa sabeleko aldean baino, argiak jotzen duenaren arabera sortzen diren isladak, ar eta emeen arteko desberdintasunak, abere zahar, heldu, gazte eta kumeen artekoak, e.a.

Koloreei buruz itaunduta, artifizialtasun horri aitzikituta, badirudi kolorea aurkikuntza nahiko berria zaiela (betiko kolore gutxi horiek beti egon dira hor, baina gaurko ugaritasuna...) eta alde pigmentariora jotzen dute; naturaz iharduten dutenean, koloreak erabiltzen dira inor konturatuko ez bailitzan, izan ere kasu gehien-gehienetan, ez zaie lehentasunezko paperik ematen.

Gainera, kolorea andrazkoen gauzatat jotzen da: loreak, jantzi kontuak eta abar *nonbait emakumezkoei egokitu zaizkenez, hauek gizonezkoek baino gehiago dakitelako* ustea oso zabaldua dago eta emaitzak bat datoz uste honekin. Halere, hau gertatzen da, oro har, kolore pigmentarioekin, hots, gizakiak sorturikoekin, artifizialekin, baina ez hainbeste (lorak kenduta) naturan agertzen direnekin eta animaliek azaltzen duten kolore eta itxura orokorrenekin, hemen gizonezkoak zerbait gehiago nabarmentzen baitira.


Honekin jarraituz, koloreen erabilera bi bereiztu behar dira: deskribapen kutsuaz erabiltzen da gauza zehatz batzuentzako (arropa dela, loreak direla, hormaren pintura dela,...); honako kasuetan zehatztasun kromatikoak nahi dira adierazi. Galdesortaren ildotik, aurkeztu zitzaizen lamina koloredunak identifikatzeko eta, hots, artifizialtasunean aritu behar zirenean, garbi gelditu zen ziurtasun eta zehetasun falta dela nagusi (gizonezkoengan gehien bat): zailtasun handiak identifikatzeko, momentu batean esandakoak ez du beti gerorako balio, aldaketak sarri, erantzugabeak ere ugari...

Baina honen gainera erabilera nagusia sailkatzekoa da, hots, ez du hainbeste inporta gauza horren zehatztasun kromatikoaren zein den, antzerako beste batetik bereiztea baino eta adibide bat aipatze arren, zeharo ezaguna dugun ardoarena: gorri, zuri eta beltza daukagu, nahiz eta ardo zuria zuri-zuria ez izan, ezta gorria gorria ere, eta beltzarekin berdin gertatu.

Erabilera nagusia bereziki sailkatzekoa izanda, eginkizun honetarako ez da beharrezkoa kategoria asko izatea eta oinarritzko bakar batzuekin nahiko dute. Baina bestela ere, kolore hiztegi urria da, kolore estandarizatuei dagokienez behinik behin: abstraktoki kolore familia gutxi batzuekin moldatzen dira baina gutxi horiekin arazo handiak dituzte lamina koloredun ezberdinen aurrean bereizketak izendatzeko; kasu hauetan erabiltzen dutena ez dago batere estandarizaturik: 'nahastutako bat, gorri zera, naranjau edo', 'berde diferentea', 'larue baltzizkie', 'gorri morautxo', 'azul beltza', 'laruetako bar', 'berde zurixkie', 'rosa bajue', 'gorri zertxue', 'azul-larue', 'gorri berdaderuek', 'gorri argikotie', 'marroi familixakoa', 'berde gorri zertxue', 'gorrixtakoa', 'laru grisau'...

Edozelan ere, nahiz eta kolore hiztegi urria izan, nahi dutena aditzera emateko baliabiderik ez zaie falta, metafora, metonimia, perifrasis eta beste tropo linguistikorik erraz erabiltzen baitute ('urre, kastaino, txokolate, hauts kolorea'), tikigarri eta atzizkirekin ondo horniturik (-aren antza, -ista, -iskie, e.a.) baita "edo" mugagabetzailearekin ere.

Kolorea beharrezkoa den heinean erabiltzen dute eta askotan gauzen kolorea baino itxura osoa hartzen da ('morenue', 'rubixue', 'ulegorrixe = pekotxue',...ilea ez ezik itxura orokorra adieraziz); behi edo ardi motak kolorearekin zein beste elementurekin bereiz



daitezke: 'gorrixe, herri ganadue edo pirenaika', 'pinttuek (zuri-beltzak) edo holandesak', 'zuri-gorrixe, asturianak edo normandak', 'kejanak edo nabarrak', 'suizak edo urdinak'; eta ardiekin: 'zurixe musu gorrixe, baltz'... Bizitzako gauzei buruz hamaika zehetasun emango dira: lur mota asko dago eta bereizteko ez da kolorea ezaugarri bakarra ('arei lurra', 'buztin lurra',...); sua kolore batekoa baino era askotakoa izan daitekeela adierazten dute euren erantzunetan ('segun egurra, pinua den edo'),... Hemen, jakitunak agertzen dira, eguneroko gauzak baitira eta arazorik ez daukate nahi dutena adierazteko.

Azkenean, kolore artifizial hauek nonbait arrotzak direlakoan edo, aipatu behar da maileguzko kolore hitzak erabiltzea eta, ez baztertzekoa, erdaraz esateko joera: 'azul klaru', 'rosa klarue', 'lila fuerte', 'ojos berdes esaten da'...; honetan ere, andrazkoak nagusi, gizonezkoek ordea, nabarmenagoa eusten diete betiko era zaharrei.

### 3.- Zeintzuk kolore?

Grafiko baten bidez, horrela islada daiteke zaharren ikuspegi orokorra. Ezkerreko zutabeen kolore nagusiak bereiztuak agertzen dira eta gutxiago agertzen direnak nabarmendu gabe, hizki xume edo larriz euren garrantzia adierazten. Eskubiko zutabeen daude erabilera propio dutenak (bizidunekin gehien bat erabilitakoak) eta beste baliabideak.

Hala ere, izan dezagun ikuspegi osatuagoa, bereiz daitezkeen multzo nagusiak banan banan ikusten:

3.1.- **Kolore nagusiak**, maiz erabiliak, erabat hedatuta eta finkatuta daudenak. Seiko multzo bat da hau, bitan banaturik: oinarritzko 'gorria', 'zuria' eta 'beltza' alde batetik eta 'berdea', 'larua' eta 'azula' bestetik. *Lehenengo hirurak gehi 'urdina' bi mailetan erabiltzen dira: kolorea adierazteko eta beste esanahi batzuekin ('miseria gorria', 'gizon zuri', 'beltzak sakatu', 'mutiko urdina' modukoak). Besteak koloreari mugatuta daude soilik eta arlo honetatik at zentzurik ez dute (aparteko kasutan ez bada, erdal gorriak jota). Lehenengo hirurak gauzen ezaugarri bezala eta sailkatzeko erabilerez gain toponimian eta deituretan aurki daitezke ere.*

Gainera, jatorritzko eta maileguzko berben arteko bereizketa egiteko aukera egokia dugu multzo honetan, gainontzekoetan ere egin daitekeena. Bereizketa hau aintzat hartzea funtsezkoa deritzot euskal ulerkera zein izan den eta, halabeharrezko bilakaeran, zein den jakiteko.

Bestalde, aipatu beharrekoa da zenbaitengan (gehien bat gizonezkoak hauek) 'berde' eta 'azul'aren arteko nahastea. 'Laru'aren kasuan interesgarriena da hartzen duen hedadura, 'horia' (gutxik ezagutzen duena) eta 'laranja' (andrazkoren bat edo beste kenda, ez erabilia) hartzen baititu bere baitan.

Baina oinarritzkoak diren eta kolorea ezaugarri bezala agertuz nabarmentzen diren sei hauei erantsi behar zaie erabat hedatuta dagoen eta oso berezia den **URDINA**. Azpimarratzeko lehenengo gauza da kolore bezala ez dela hartua izan, nahiz eta denok ezagutu eta erabili; hala ere oso kontutan hartzekoa da arlo batzuetan duen garrantzia eta, adibi-

dez, zenbait gauzei buruzko koloreaz galdetuak, oinarrizko lehenengo hiruren atzetik ('gorri', 'zuri', 'beltz') gelditu da gainontzekoetatik nabarmenduz.

Lehen aipatutako bi eremuko kontua garbi azaltzen da kasu honen bitartez: kolorea gauzen ezaugarri bezala ikusita da bata, oro har artifizialtasunak erakusten duen eran; baina bizitza arruntak erakusten dizkigunak ez dira, normalean, hain biziak, tartekoak eta nahastuak baizik, eta horra hor bestea. 'Urdina' bigarren eremuan kokatzen da, ez da "benetako" koloretzat hartzen, tartekoa da, indar gutxikoa, ez du besteei eskatzen zaien bizitasuna edota homogeneotasuna eta artoak edo ogiak urdintzen direnean hartzen duten kolorea denez, tartekotasun horretan, honako adiera hauekin, gutxienez, uler daiteke: 'berde', 'azul', 'marroi', 'gris'. Adiera hauetan izan dira erakutsitako adibideak, identifikatzeko zailtasunak, jakina, agerian utziz: 'ez dauka kolore fijosik, zurixkie, grise ta berdie mezklaute', 'gaitza esateko, como berde agrisao',... Gainera, ezin da ahaztu beste erabileratan ere agertzen dela, bereziki 'zelako mutiko urdine!' ezagunean.

3.2.- **Ez hain erabiliak** direnekin osa dezakegu bigarren multzoa. Hemen sartzen dira koloretzat hartuak, baina ez hain erabiliak izaten direnak eta ezaugarri bezala esan behar da soilik eremu kromatikoan erabiltzen direla. Multzo honetakoak maileguzkoak dira danak eta batzuk gehiago azaltzen diren bitartean ('gris', 'marroi', 'morau', 'rosa'), beste batzuk ordea oso gutxi ('lila', 'laranja', 'beige', 'granate'...).

Hauen artean 'grisa' da nabarmentzekoa: asko azaldu da, egoki erabiliz eta 'urdin'arekin ustezko lehia ez da ematen, lehenengoa kolore artifizialekin erabiltzen den bitartean, bigarrena bizidunekin bakarrik aplikatzen baita, behia zein gazta izan. Atzetik dator 'marroia', baina kasu honetan ere bizidunengan 'gorriak' duen nagusitasuna nola gailentzen zaion nabaria da, hau geldituz gauzen ezaugarri kromatikoa azpimarratzeko; hala ere, kolore mota honetarako 'kastaino', 'txokolate', 'tabako',... izendapenak sarri agertzen dira.

'Rosa'rekin dugun ezaugarria da gehien bat andrazkoak direla berau aipatu dutenak eta honekin batera oso interesgarria den beste izendapena: "zurigorrixe" edo "gorrizurixxe", gizonetako soilik aipatutakoa. Bestalde, aipamen berezia merezi du kolore bezala aipatutako 'ilunak', nolabaiteko hedadura duena eta 'total baltza ez dena' esaldiarekin definituta izan dena.

Hemen sar daitezkeen besteek ('lila', 'beige', 'granate', 'pardo', 'fusio'...) ez dute pisu handirik, bakarren batek aipatutakoak baitira. Multzo honekin bukatzeko beharbada nabarmendu beharko litzateke 'horia' galdetutakoen erdiak ere ez duela ezagutzen eta 'orlegi' hitzarekin zer esanik ez!: entzunda duten bakarrak umeei entzundakoa da eta kasu gehienetan zein kolore mota den zehazki jakin gabe.

3.3.- **Erabilera propio dutenak**: arlo batzuetan soilik erabiltzen direnak, bereziki bizidunekin. Multzo honetakoek berezitasun batzuk dituzte eta gehien erabilia eta hedadura dagoena 'nabar' kolorea da. Hasiere batean ez da kolore bezala aipatua izan (eremuarena gogoratu), baina denok ezagutzen dute eta, nagusiki, animaliekin lotzen dute, bereziki idiarekin, mota honetakoak oso ezagunak baitziren (egun bat ere ez dago bailara osoan).

Atzetik azalpen berezirik behar ez duten 'pinto' (zuri-beitza zein zuri-gorria), 'rubio', 'moreno',... datoz, baita 'beilegi' ere ('belegixe'), azken honetarako jarritako adibideak behienak izan dira eta berau deskribatuz 'gorri klarue, gorri baino laruskie, laru argixe', 'gari kolorekoa'... ; kasu honetan ere gizona eta emakumezkoen arteko alde nabaria da lehenengo alde.

Gutxi agertuz, beste batzuk azaldu dira: 'argixe', 'mestizo', 'pelirrojo', 'klarutxu',... Agerian gelditzen da finkatugabeko erabilerak direla, batzuk zalantzagarritasunaren eredu.

3.4.- **Metaforak eta beste:** kolorea esan beharrean halako gauzak duen koloreaz hitz egiten da, gauzaren izena koloretzat hartuz (ezin da ahaztu onartuta dauden beste batzuk jatorri berdina dutela: 'naranja', 'rosa'...). Nabarmendu direnak 'kastaino' eta 'txokolate' izendapenak dira (estandarra den 'marroia' nolabait ez dutela zeharo haiengatu adieraziz), baina aipatutakoen zerrenda oso luzea da: 'hauts, kanela, butano, teja, gari, kiskila, zeru, sangre de toro, salmon, urre, musker, tabako, aÑil, narru, tomate,... kolorea'.

Baliabide hauek aipatuta ere, kolore hiztegi urria denaren islada, oso izendapen bi-txiak agertu izan dira; besteak beste 'tostau', 'diferentea', 'nahastutakoa', 'erdiperdiko',... Honen ildotik aipa daiteke tikigarri eta atzizkien erabilera nagusia eta izen asko esatera dagoen joera, hauek parekotzat joz, 'zurixki, hauts kolorea, grisantza edo...' kasu.

+++++

Sexuari dagokionez, kolore-hitz batzuen erabilera nagusia (edota osoa) emakumezkoek berenganatzen dute eta beste batzuk gizonaenak. Emakumezkoek nagusiki: 'rosa', 'lila', 'marroi', 'granate', 'beige', 'naranja', 'bioleta' eta 'fusia', eta hauek soilik aipatutakoak: 'kiskila', 'sangre de toro', 'salmon', 'plomo', 'urre k.', 'tabako', 'aÑil', 'tomate', 'tostau', 'pelirrojo', 'diferentea', 'musker k.' eta 'klarutxu'. Gizonaenak nagusiki: 'beilegi', 'nabar k.' eta 'ilun', eta soilik aipatutakoak: 'hauts k.', 'kanela', 'gari k.', 'pardo', 'mestizo', 'erdiperdiko', 'nazareno k.', 'gorrizuri', 'tabla k.', 'narru k.', 'nahastutakoa' eta 'zuri-laru'.

#### 4.- Bukatzeko

Sarreran aipatu dudan legez, zaharrekin (65 urtetik gorakoak) ez ezik gazteekin ere (hauek ere basterritarak) egin nuen azterketa, emaitzak parekatuz. Talde biek erakusten dute 'gatazka' deiturikoa, erabili eta ezagutzen dutenaren artean sortzen dena: zaharrentzat garai batekoa eta gaurregungoa bat egin beharra, gazteentzat ikastolan ikasi eta baserrian erabiltzen diren artekoa.

Belaunaldi hauen arteko aldaketak handiak izan dira eta kolore arloan ere nabariak; adineko baserriar hauei egokitu zitzaizkien garaian errealitatea naturalagoa zen: inguruetatik hasita (ez dorre elektrikoak, ez irrati-antena mendiko tontorrean, ez telebista-antena teilaletan, ez hainbeste bide eta), lanerako erabiltzen zen indarra (idi, zaldi, mandoena) edo jakiak ere, ziren bezala agertuz eta euren itxura, euren kolorea egoeraren adierazle.



Egun, berriz, artifizialtasuna nagusi da, inguruetan nabariagoa izateaz aparte, lanerako indarra kolore artifizialaz jantzi da (traktoreak, kotxeak, tresna motordun oro) eta jakiak ere koloretzailekin iristen dira, itxura ederra baino ederragorik erakutsiz, zaporerik gabeko negutegiko fruitu hauena.

Baina egoera eta baldintzapenak asko aldatu badira, asko ere gazteek, zaharrekin alderatuz, erakusten duten ikuskera. Adibideetan sartuz, “zein koloreetakoa da lurra?” galderari zaharrek, batz bestea, 3 erantzun eman duten bitartean, gazteek 1’5 bakarrik eta zaharrentzat hauek BELTZ, GORRI eta ZURI diren bitartean, gazteentzat MARROIA da nagusi; eguzkia zaharrentzat ZURI eta GORRI (1,76 batezbestekoa), gazteentzat HORI (1 batezbestekoa)... Koloreekiko ikuspuntua ‘unibertsalagoa’ dela ez dago zalantzarik, hots, ez dute hainbeste bertako berezitasunak isladatzen eta mundu garatuan nagusia kontsidera daitekeen eskemarekin bat etorriz, beste herritan aterako lirakeen emaitzetatik oso oso gertu daude.

Laburbilduz esan daiteke kolorea dela eta, gazteengan ez dela jarrera berezirik antzematen eta ulertzen dute, oro har, haiek lantzen duten ikuspuntutik eta, beraz, pigmentarioek erabateko lehentasuna dute. Kolore hiztegia askoz finkatuagoa da eta, oro har, horretara mugatua, batz bestea kolore gehiago aipatuz; tikiarriak, metaforak eta, askoz gutxiago azaltzen dira eta askoz ziurtasun handiagoa erakusten dute koloreak identifikatzen. ‘Gorri’ kasua kenduta, ia ia ez dute kromatikotik aldentzen diren esanahirik ezagutzen eta sexu aldagaian ez dago alde esanguratsurik.

Eta huskeria ez delako ziurtasunean, honekin batera badago besterik ere: zaharrek berbakera bat baldin badute koloreetarako, gazteengan ez da bera izaten kasu guztietan (baltz-beltz, laru-hori, e.a.), baina benetan kezkatzekoa da ‘arrosa’ koloreari buruz gertatutakoa, zaharren hizkeran ‘arrosa kolorea’, ‘rosie’ edo ‘rosa’ izan den bitartean, gazte askok ‘larrosa’ izendatu du hau, zaharrentzat lore mota baino adieratzen ez duena. Erdal eragin nabaria, beraz.

Edonola ere, zenbait datu aurrean izanda, badirudi zahar hauek eta gazteen arteko aldea handiagoa dela, lehenengoak eta XVI. mendeko Landuchiok (*Dictionarium linguae cantabrigiae*, Edición de Manuel Agud y Luis Michelena, Seminario “Julio de Urquijo”, San Sebastián, (1562) 1958) isladatutakoaren artekoa baino. ‘Urdin’ hitzaren kasua nabaria da: bere hiztegian honako esanahiekin agertzen da: “Barba cana = vicarurdina” (69 or.), “Cana cosa = gauça vrdina” (78 or.), “Moho de pan = oguian vrdina” (156 or.), “Pardo color = colore vrdina”. “Pardo animal = abere vrdina” (167 or.). Zaharren adierak oso gertu daude hauetatik (‘marroia’ galizismo berantiarra da, ‘pardo’ hitza baztertu zuena); gazteek ordea, ‘urdina’ gaztelerazko ‘azul’arekin lotzen dute erabateko nagusitasunez; zaharrentzat azken honen kidea ‘azule’ da eta Landuchiok jasoa du: “azul cosa = gauça azul” (68 or.)

Kulturak, hizkuntzak,... bilakaeran ulertu behar dira, aldatzen, egokitzen egoera berritara. Baina gurea bezalako bat beste indartsuago batzurekin halabeharrezko harremanetan dagoenak arrisku bizian ditu bere berezko ikuskerak baita bera izateko arrazoiak ere.